

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK BIRGAITZEKO OBRETARAKO

BANAKAKO JARDUKETAK*

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren (Etxebide) laguntza-lerro bat da. Laguntza horien deialdia urte osoan dago zabalik, eta "birgaikuntzakotzat" jotzen diren jarduera guztiak aurkeztu daitezke deialdira, auzokide bakoitzeko 1.000 €-tik gorako kostua baldin badute. Laguntza horiek jaso ahal izateko, obrak erkidegokoak badira, EIT egin behar da. Eskaera obrak hasi baino hilabete lehenago izapidetu behar da, gutxienez. Laguntzak atal hauetan zehazten dira:



I. Jabeen Erkidegoarentzat:

Egitura, bizigarritasun eta irisgarritasun obrak: aurrekontuaren %5 (gehienez 2.000 €)

Eraikinaren ingurutzaille termikoa hobetzeko obrak

- Ingurutzailleari lotutako galera energetikoen % 0 eta % 50 arteko hobekuntza lortzen duten jarduerak: aurrekontuaren % 30 (PP) (gehienez 30.000 €).
- Ingurutzailleari lotutako galera energetikoen % 50etik gorako hobekuntza lortzen duten jarduketak: aurrekontuaren % 50 (PP) (gehienez 45.000 €).

II. Bizilagunentzat

Zerga-onurak

Bizikidetzaren unitate guztientzat, GFAko Ogasun Sailak ezarritako mugekin, eta betiere Eusko Jaurlaritzak jarduketa hori birgaitze-jarduketatzat hartzen badu.

Maileguak:

33.000 eurotik beherako diru-sarrerara haztatuak dituzten bizikidetzaren unitateentzako finantzaketa kualifikatua. (Pi < 33.000 €)

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak

- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza 1, 2, 3 edo 4 motako birgaitze-obretarako, 21.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten bizilagunentzat (jabeak).
- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza berezia 65 urtetik gorako bizilagunentzat edo mugikortasun murriztua edo sentzoriala duten eta 25.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak (IP) dituzten pertsonentzat.

| Diru-sarrera haztatuak | Familia Unit. kideak | ½ obrak | 3 obrak | 4 obrak |
|------------------------|----------------------|---------|---------|---------|
| <9.000 € | =<3 | 20% | 25% | 7% |
| | 4 | 25% | 30% | 10% |
| | =>5/ FN | 30% | 35% | 15% |
| 9.001 € - 15.000 € | =<3 | 15% | 10% | 5% |
| | 4 | 20% | 25% | 7% |
| | =>5/ FN | 25% | 30% | 12% |
| 15.001 - 21.000 € | =<3 | 10% | 15% | 2% |
| | 4 | 15% | 20% | 5% |
| | =>5/ FN | 20% | 25% | 10% |
| GEHIENEZKO KOPURUA (€) | | 3.850 | 4.180 | 1.100 |

| Diru-sarrera haztatuak | Familia Unit. kideak | Irisgarritasun lagun. berez. |
|------------------------|----------------------|------------------------------|
| <9.000 € | - | 100% |
| 9.001 € - 12.000 € | 1 | 75% |
| | =>2 | 100% |
| 12.001 - 15.000 € | 1 | 25% |
| | 2 | 50% |
| | =>3 | 100% |
| 15.001 - 18.000 € | 1 | 0% |
| | 2 | 25% |
| | =>3 | 50% |
| 18.001 - 25.000 € | 1/2 | 0% |
| | =>3 | 25% |

1. motako obrak dira: egitura eta eraikuntza egokitzeko obrak 2. motako obrak: etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak egokitzeko obrak 3. motako obrak: etxebizitzak eta horien sARBIDEAK desgaituei buruzko indarreko araudira egokitzeko obrak 4. motako obrak: eraikuntzaren eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak.

Lege-esparrua

2006ko abenduaren 29ko Agindua. Etxebizitzak birgaitzeko finantza-neurriak; 2011ko azaroaren 23ko Agindua. Etxebizitzak Birgaitzeko Finantza Neurriei buruzko Agindua aldatzea; 2014ko azaroaren 26ko Agindua, Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua bigarren aldiz aldatzen duena; abenduaren 26ko 210/2019 Dekretua, kreditu-erakunde eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzari eta etxebizitzaren arloko neurri osagarriei buruzkoa.

* **Jarduketa integratuak** dira errehabilitazio integratuko eremu hauetakoren batean garatzen direnak: Arrasateko HH eta Arrabalak, Elgetako HH, Leintz-Gatzagako HH, Antzuolako HH, Aretxabaletako HH, Oñatiko HH, Bergarako HH eta Ezkoriazako HH. Eta eremu degradatu hauetakoren batean garatzen direnak: Arrasateko San Andres auzoan (A-7 eta A-11), Aretxabaletako San Migel de Bedarreta auzoan eta Bergarako Osintxu auzoan. Gainerakoak **jarduera isolatuak** izango dira.